

1. Zer da Gizarte Psikologia?

1.1. GIZARTE-PSIKOLOGIA ZERTAN DEN

Lehendabizi, Gizarte Psikologia zer den azaldu behar dugu, zehatzago, haren ikuspegi berezia, haren analisi-maila edo era berezia, zertan den azalduko dugu. Horixe izango baita liburuan zehar jorratuko dugunaren markoa. Hartara, arrunki erabiltzen diren hiru definizio-bide ekarriko ditugu hona. Gizarte Psikologia zer den zehazteko hiru bide hauek:

Analisi enpirikoa: gizarte-psikologoek zer egiten duten (Gizarte Psikologiaren agenda, gai-zerrenda eta ikertzeko moduak).

Analisi normatiboa: gizarte-psikologoek zer egin beharko luketen (zein den Gizarte Psikologiaren helburua, zein, horren arabera, bere ikergai eta metodoak).

Analisi historikoa: gaur arte gizarte-psikologoek zer ikertu eta zer egin duten (nola sortu zen zientzia hau eta zein izan diren bere ildo teoriko nagusiak, bere ekarpen teoriko eta praktikoak...).

Lehenengo biak jorratuko ditugu segituan: azkena, berriz, aurrerago eta modu sintetikoago batean. Ikus ditzagun, bada.

Analisi enpirikoaren bidezko definizioa

Gizarte Psikologiaren agenda: zer ikertzen dute gizarte-psikologoek? Bide horretatik Gizarte Psikologiaren arloak eta ikertzeko esparruak erakutsi beharko genituzke: oinarritzko prozesu psikosozialak, gizarte-eragina eta jarrerak, taldearen psikologia eta gizarte-multzo handien psikologia (kolektiboa) eta abar. Baina egia esan, Gizarte Psikologia definitzeko modu honek badu akatsik, azken finean deskribatzen direnak instituzionalki onartuak izan diren ikerlan eta ikertzeko ildoak direlako; ez da kontuan hartzen edukiaren balioa. Berez egiten dena paradigma, ildo edo teoria-multzo nagusia onartzea da.

Bestalde, eduki edo gai ezagunez gain, analisi-mailak ere kontuan hartu behar dira: pertsonabarnekoa, pertsonartekoa, taldeabarnekoa, taldeartekoa, gizartekoa eta multzo handietakoa (kolektiboetakoa). Beraz, gaiak edo edukiak eta analisi-mailak bateratuta “agendaren” irudi osoa izango genuke. Jimenez Burillo-k (1981) ildo horri jarraituz, definizio efektiboaz eta definizio intentzioduzkoaz dihardu. Lehenengoaren arabera hiru dirateke Gizarte Psikologiaren gai-multzoak:

- Jakintza-arlo honen historia, kontzeptu eta metodologiaren gaineko gaiak.
- Subjektuaren eta ingurunearen gainean: prozesuak (komunikazioa, gizarteratzea), aldagai psikosozialak (sentimenduak, motibazioak, asmoak), aldagai makrosozialak (egiturak, klaseak, kulturak, ideologiak...).
- Jarrerak eta taldeei buruzko gaiak.

1.1. jarduera

Definizio teorikoa edo normatiboa edo intentziozkoa

Definizio efektiboak asetzen ez bagaitu “intentziodunetara” jo behar dugu. Asmoz eta jakitez egindako definizioa, izatez denetik izan behar duenera, hain zuzen ere. Artez, zertan aritu behar du Gizarte Psikologiak? Definizio normatibo gehienek hiru osagai hauek biltzen dituzte: gizabanakoa, gizarte-portaera eta elkarrekintza. Orientazioaren arabera garrantzi handiagoa emango diote bati edo besteri. Eta ordena horren arabera, honako galdera hauei erantzun bat edo beste emango diete:

- Zer eta nola ikertu behar du Gizarte Psikologiak?
- Ondoko zientziekiko, Gizarte Psikologiak ba al du berariazko ikergairik?
- Galdera horrek Gizarte Psikologiaren sorrerara garamatza: zelan sortu eta garatu zen?

Munné-k (1982) honela laburtzen ditu Gizarte Psikologia zientzia bereizia ote den arazoarekiko jarrerak: aldeaz, izaera bereizia ukatzen dutenak eta ondorioz alde batera edo bestera lerratzen direnak, alegia, psikologismoa eta soziologismoa; aldeaz, bi poloak uztartzen saiatu direnak, ikuspegi osoago baten bila, soziopsikologismoa edo psikosozilogismoa.

Izaera bereizia ukatzen dutenak: psikologismoa eta soziologismoa. Ikuspuntu hauek ez dute Gizarte Psikologia zientzia bereizitzat jotzen, beste zientzia baten mendeko atala dela uste dute, Psikologiarena edo Soziologiarena.

Psikologismoaren ustez “pertsonek” da ikergairik behinena, pertsona barneko jarduera psikikoak ikertu behar dira, horiek emango baitute giza portaeraren kontu nahikoa. Aldagai psikologikoen giza portaera, kognizioa, jarrerak eta abar, azaltzeko eta ulertzeko behar beste argibide emango dute. Ikuspegi honen arabera gizartea eta gizarteko aldagaiak “ingurunea” baino ez dira: aldaketarik edo estimulaziorik sortzen badute ere, gizabanakoaren izango da eta beste gizabanakoengandik (gizartea = gizabanakoen multzoa, gizartea ez da gizabanakoen batuketa baino). Beraz, analisi- eta ulermen-maila edo esparru oinarritzkoena eta batzuetan bakarra gizabanakoa da. Bistan da, murrizte edo “erredukzionismo” honek oso kontzeptio abstraktua duela gizakien gainean: ez ditu kontuan hartzen benetako gizakiak, gizarte-ingurune batean bizi eta sortu direnak. Gizakiak, antza, pertsona “hutsak” dira; gizabanako hutsak eta gizartetik sortzen diren gauzek eta gertaerek, eragina badute ere, ez dute gizabanakoaren muina aldarazten. Beraz gizarte-gertaeren zergatia ez da gizartearen baitan egongo, gizabanakoen muin horretan baizik; senak, grinak, ezagutzeko egiturak, jarrerak edo asmoak eta abar izan daitezkeela muin hori. Azken finean, beraz, giza portaeraren zergatiak psikologia pertsonalera —eta hori Biologiaren esparrura— mugatu edo murriztu nahi dituzte, Natura Zientzietan ukan duten ospe eta konfiantza-maila lortu nahirik edo.

Soziologismoak, berriz, gizarte-egiturak berezkotzat jotzen ditu, hau da, gizakiez gaindiko izaterik balute bezala. Gizabanakoa eta bere jarduera psikikoa egitura horietatik eratortzen dira, egitura horiek moldatzen dituzte. Banaketa hori dela eta, egile batzuen ustez bi gizarte-psikologia omen daude: soziologikoa (mikrosoziologia) eta psikologikoa (Alvaro & Garrido, 2003). Eta bost tradizio omen: taldearena, gizabanakoarena, instituzioena, lewiniarra, historiko-dialektikoa (Blanco, 1988).

Soziopsikologismoa/psikosoziologismoa: ikuspegi osoagoaren bila. Oro har, gaurko gizarte-psikologoek “murriztea” saihestu nahi dute eta Gizarte Psikologiaren jatorrizko izaerari eutsi. Hartara, Gizarte Psikologia beste zientzia baten mendean edo beste zientzia baten mugetan ezarri nahi duten murrizteak ekidin behar dira eta bestelako analisi-maila hartu: gertaera psikologikoak ez dira jo behar soziologikoen aldagai independentetzat, alegia, lehenengoak bigarrenen ulertze nahikotzat, ezta alderantziz ere. Horrela gertaera psikikoak eta sozialak maila ezberdinetan ulertu behar dira baina elkarren eraginean eta elkarren eragin hori ikertzeko esparru kontzeptual berezia behar da. Autonomia kontzeptual hori lortzeko bide batzuk daude. Tuner eta Oakes-en aburuz (1986) Gizarte Psikologiak oso bestelakoak diren gertaerak bildu behar ditu: alde batetik, gertaera psikologikoak (adimenaren ezaugarriak eta jarduerak) eta, bestetik, soziologikoak (giza artetik, elkarrekintzetatik sortzen diren gertaerak eta jarduerak). Baina benetan al dute gertaera-mota horiek izaera ezberdina? Edo analisi-maila ezberdinak baino ez dira? Hau da, noraino dira bi errealitate ezberdin eta noraino guk mundua ulertzeko darabilgun sailkapen bat, kategorizazio edo analisi-bide bat?

Lehenengo kasuan, hots, izaera ezberdina duten bi errealitate-mota izango balira (psikologiko/norberarena *versus* soziologiko/gizartekoa), Gizarte Psikologia bi errealitate ezberdin uztartzen arituko litzateke: berez bestelakoak diren bi errealitate-esparru edo bi gertaera-mota lotzen. Alferrikako lana. Kasu honetan, gainera, Psikologia eta Soziologiaren arteko hutsunea estaltzeko zubia izatea izango litzateke Gizarte Psikologiaren zeregina. Baina, bigarren kasuan, bi analisi-mota edo errealitatea ikusteko eta ulertzeko bi eginbide baino ez badira, orduan, zilegi da oso, baita egoki ere, uztartzeko ahalegin hori, eta zubia gabe, ulermen osoago baten egitasmoa izango litzateke.

Bidenabar esan dezagun, azken ikuspegi horren arabera, giza errealitatea bat dela funtsean, baina tankera askoko gertakarietan sortu eta agertzen den errealitatea: gure kulturaren gertakari batzuk “psikologikoak”, pertsona barnekoak, dira, bestetzuk soziologikoak edo “gizartekoak”.

Gizarte Psikologiak gertakari horiek noiz, nola eta zergatik duten izaera hori azaldu eta ulertzeko bideak eskaini behar dizkigu. Beste modu batez esanda, pertsonaren eta gizartearen errealitateek zer-nola eragiten dioten elkarri, eta zergatik gertaera batzuk psikikoak diren eta bestetzuk, berriz, sozialak. Doise-ren ustez, esaterako, Gizarte Psikologiaren xedea gizabanakoa mikrosozialean integratzea eta mikrosoziala makrosozialean integratzea izango litzateke.

Beste batzuek, ordea, berariazko objektua asmatu diote Gizarte Psikologiari. Ikuspegi berezi eta globalagoa izatea nahikoa ez zelakoan, “errealitatearen” zati edo atal bat zatikatu eta zedarritu dute, zientzia honek ere bere berezko ikergaia izan dezan. Psikologismoa edota soziologismoa bezalaxe, hau ere “substantibismoa” da: substantzia edo errealitate-esparru

batean oinarritu nahi baitute zientzia hau. Lehendabiziko kasuan pertsona barnekoaren esparruan, bigarrenean gizartekoaren esparruan eta hirugarren honetan “gizarte-elkarrekintzaren esparruan”.

Gizarte-elkarrekintza: gizakiek elkarrekin dihardutenean eta elkarri eragiten diotenean sortzen dituzte bai gizarte-egiturak, bai gizabanakotasuna, baita munduaren ulerkuntza ere. Elkarri ekite eta eragite horri deritzo “elkarrekintza”. Hala ere, eta elkarrekintza errealitate *sui generis* jo gabe, “elkarrekintza” kontzeptua analisi-maila ezberdinak lotzeko eta uztartzeko bide egokia da. Ikuspegi horri “interakzionista” deritzo, eta askok uste du hori dela “benetako ikuspegi psikosoziala” (Torregrosa, 1982).

1.2. jarduera

1.2. IKUSPEGI PSIKOSOZIALA

Gizarte Psikologiaren funtsa ez da berariazko metodo bat edo berariazko ikergai bat, oinarritzko ikuspegi berezi bat da: *ikuspegi integratzailea* da gertaera psikologikoak eta soziologikoak batera ulertu nahi dituelako, ez da mugatzailea edo murriztailea, ez baitu psikologikoa soziologikora edota alderantziz mugatzen, hortaz, gertaera-mota horiek bere horretan aztertzearen aldekoa da eta, azkenik, ez da determinista, gizarteak pertsonak moldatu arren horiek ere errealitate sortzaileak direla onartzen duelako.

Historikoki ikuspegi hau soziologiarena izan zen lehenago, baina psikologiaren aurrean zientzia bezala agertu ahal izateko “gertaera soziologikoen autonomia eta ezberdintasuna” aldarrikatu behar izan zuen. Horregatik, eman zien arreta berezia gertaera “makroei” (gizarte-aldakuntza handiak, gizarte-sistema handiak...) eta bazterrean utzi pertsona artean (edo talde txikietan) gertatzen ziren gauzak; hori, jakina, ez da soziologo guztien ibilbidea: Simmel, esaterako, klasikoetako bat, gizarte-psikologotzat jo daiteke.

Psikologiak, berriz, “gizabanakoaren errealitate finko eta ukaezinetik” abiatu zenez ez zuen izan instituzionalizatzeko arazorik, eta natura-zientzien ereduie jarraituz gizabanakoa “isolatu” eta psikea edo portaeraren nondik norako guztiak biologiarren kontzeptuen arabera azaltzen saiatu ziren psikologoak (instintuak, erreflexuak...). Gizarte Psikologiak, beraz, bi eremu zuen jaiotzeko: alde batetik, Soziologiak utzitako talde txiki eta pertsonarteko harremanena; bestetik, Psikologiak utzitako gizakien arteko portaera bereziak. Ereduotan sortu zen Gizarte Psikologia.

Ildo integratzaile horretatik plazaratu berri diren proposamen teorikoen adibide egokiak dira Giddens-en *gizarte-estrukturazioaren eredu*a eta Stryker-en *interakzionismo sinboliko estrukturalista*. Biek estrukturalismoaren eta funtzionalismoaren ekarpenek ekin-tzaren teoriaren ekarpenekin bat egitea nahi dute: gizakien portaera moldatzen omen duten aurretiko egituren eragina eta norberaren asmo eta gogoetak bildu ikuspegi bakar batean. Bat-egite hori Gizarte Psikologiaren xede nagusia bide da (Alvaro, 1995).

Azken finean, Gizarte Psikologiaren xedearen azpian arazo filosofiko zahar bat ebatzi nahia dugu: zer da “ontologikoki” aurrena eta nagusia: gizabanakoa ala gizartea? Hau da, zer da berez lehenago eta zer bestearen eratorrin edo mozkina: gizabanakoa ala gizartea? Gizakiek sortu eta gauzatzen dute gizartea ala gizarteak sortu eta gauzatzen ditu gizakiak eta horien “psikea”?

Horrela planteatuta arazoak huskeria dirudi, baina Mendebaldeko pentsamenduaren arazogune klasiko eta nagusienetako bat da, gaur ere oreka gaitzak egin beharra dago ez erortzeko alde batera edo bestera; izan ere, gure pentsamendu-tradizioan erabat sustraituta dagoen ikusmoldea da gizabanakoa/gizartea aurkaritza. Baina esan bezala, ikuspegi psikosozialaren arabera gizartea eta gizabanakoa izatez sustantzia berekoak dira: gizabanakoak gizaki-artearen mozkinak dira eta gizartea gizabanakoen elkartea baino ez da.

Jakina denez, Gizarte Psikologia bere testuinguru historiko eta intelektualaren emaitza da; zehazkiago: Modernitatearen emaitzetako bat. Eta Modernitatean, mendeetan zehar garatu eta sakondu zen gizabanakoa/gizartea aurkaritza hori gaindiezin bihurtu zen eta, horrexegatik hain zuzen ere, konpondu beharreko arazo larri, bai gizartearen, bai gizakien nondik norakoak ulertzeko.

Ondorio gisa, Gizarte Psikologia, European ulertu den moduan, honela defini liteke: “elkarrekintzaren bidez nahiz taldebarneko eta taldearteko irudikatze-prozesuen bidez, gizartea eta gizabanakoa zelan uztartzen diren ikertu behar duen zientzia” (Paez et al., 1992). Adibide gisa, hona hemen Ovejero-ren eskuliburutik aldatutako pasarte hau (Ovejero, 1998), aipatutako ikuspegietatik bortxazko krimenen arazoa zelan aztertzen den jorratzen duena:

Soziologoek gizarte-mailako ikuspegi batetik, (bortxazko krimenen arazoaren) azalpena gizarte-eragile handietan bilatuko dute, esaterako: bortxazko krimenen tasa handiak, pobrezia-rekin, urbanizazio eskasarekin eta industrializazio azkarrekin lotuko dituzte. Ikusten denez, aldagai makrosozial batzuei erreparatuko diete, gizabanakoak eta beren egoera hurbilak kontuan hartu barik. Psikologoek, osterantzean, gizabanakoari erreparatuta, norberaren historiak eta aldagaiak erabiliko dituzte krimenen arazoa argitzeko, esaterako: gizarte-ingurua alde batera utzita, “gaizkilearen” izaera edota ezaugarriak. Bi ikuspegi horiek ez bezala, Gizarte Psikologiaren berezitasunaren gakoa hau litzateke: jendeak egoera jakin batzuetan zelan jokatzeko erabiltzen duen ulertzea. Esaterako: gizarteak eta prozesu makrosozial horiek zelan moldatu zituzten pertsona bat eta bere ezaugarriak, pertsonartean zein egoeratan sortzen den frustrazioa, eta hortik zelan sortzen den agresibitatea, baina ez hori bakarrik, zergatik kultura batzuetan frustrazioak oldarkortasuna sortzen duen eta bestetan ez. Portaeraren azalpena gizabanakoak inguruarekin duen harreman eta elkarrekintzan aurkituko baitugu, zehazkiago gizarte-inguruarekiko elkarrekintzan. Barriga-k dioen legez, “psikologikoa ezin da ulertu gizarteko eragina kontuan hartu barik, ezta gizarteko gertaerak ere, giza arte jakin hori zertzen duten gizabanakoak kontuan hartu barik”.

Psikologiak pertsonen ezaugarriak giza portaeran duten garrantzia ikertzen bide du, Gizarte Psikologiak portaera horretan gizarte-ezaugarriak edota gertaerak zer-nolako garrantzia duten ikertu behar du, bai norberaren portaeran, bai talde eta giza multzoen portaeran ere (talde-dinamikak, harremanak, gizarte-nortasunak...). Baina giza portaera edo giza ekintza, norberaren asmoz eta zioz bezala, inguru historiko eta kultural bateko gizarte-sinboloen bidez ere eratu dela ahaztu barik (Ovejero, 1998).

Gizarte Psikologia giza elkarteko bizitza ulertzeko ikuspegi berezia da. Gizarte Psikologia ez da, beraz, Psikologia eta Soziologiaren artean geratu den tartea bete behar duen zientzia. Tarte hori desagerrarazteko ekinbidea baizik. Gaur egun badu ekarpen teoriko nahikoa, bai Soziologiaren ikuspegiarentzat eta bai Psikologiarenarentzat ere; ezinbesteko osagarri den ekarpen teorikoa. Baina ekarpen horretaz gain, ikuspegi berezi

eta berezia eskaintzen du, gure pentsamendu-tradizioan sakon errotutako hainbat muga eta aurkaritza gainditu gura dituen. Gizabanakoa/gizarte, psikikoa/soziala, norberarena/elkartearena, subjektiboa/objektiboa dikotomiak, eta giza errealitateak oro, giza elkarrekintzaren esparruan kokatu nahi dituen ikuspegia.

Ikuspegi psikosozialak giza ekintza eta portaera ulertzeko honako aldagaiok uztartu nahi ditu: batetik, subjektuen asmoak eta arrazoiak (norberaren intentzioak), bestetik, gizarte-egituren eragina. Uztartze- edo artikulatze-lan hori ezin da egin gertaera-multzo bat bestearen mende ezarritz, hots, bata bestearen ondorioa izango balitz bezala. Benetako uztardurak biak maila berean kokatuko ditu, elkarri eragiten baitiote, ez soilik batak besteari.

Non? Zer mailatan edo giza gertaeratan ikusten dugu elkarreagin hori? Non eragiten diote elkarri subjektuen asmoek eta gizarte-egiturek? Gizarte-elkarrekintzan, hain zuzen ere. Bertan sortzen dira gizarte-erakundeak, bertan gizakiak berak ere. Horregatik, Gizarte Psikologiaren analisiak biribila behar du: gizarte eta ingurune eragileetatik, erakunde eta egituretatik, talde eta elkarteetatik, pertsonen ekintza eta intentziodun portaeretara eta atzekoz aurrera.

1.3. jarduera

1.3. GIZARTE-PSIKOLOGIA ETA ZENTZUMENA

Gizakiok zentzudun mundu batean bizitzeko beharra dugu, bizitzak edo izateak baduela zentzu sakon eta errotiko bat sinesteko beharra. Izan ere, gizakia “abere sinbolikoa” da, bere ingurua sortu behar duen animalia. Mundu neutral, arrotz, material eta organikoari sinboloen bidez eta komunikazioan, hots, pertsonarteko adostasunean, zentzua emanez sortzen dute gizakiek beren ingurua (Becker, 1968; Schutz, 1962).

Aurreko paragrafoan dugu Gizarte Psikologiaren mamia. Zentzudun mundu batean bizi gara eta mundu hori subjektu arteko komunikazioaren mundua da. Antza, mundu ezagun eta gardena da gure ingurukoa. Geure burua mundu horrekin bat eginda bizi omen gara. Neurri batean hala da. Neurri batean geure inguruko mundu hurbilean zentzu osoaz bizi gara. Eta zentzutasun horri eusteko hainbat kontu, argudio, hitz... hainbat baliabide dugu. Hau da, bada, Gizarte Psikologiaren mamia: gizakiok zentzudun mundua zelari eraikei eta mundu horri zelari irauarazten dioten, beti giartean ari direlarik.

Hala, bada, eguneroko azalpenetan jendeak erabiltzen dituen argudio eta baliabideak aztertzerakoan funtsezko bereizketa bat egin behar dugu. Gauza eta gertaera batzuek zentzua daukate, ez subjektuek arrazoibide, azalbide edo zergatia argi daukatelako. Ez horixe. Zentzuzkoa edo zentzudunak dira subjektuaren mundua (subjektua bera barne) zertzen dutelako. Agerikoaren gainean subjektuak ez du azalbide nahikorik. Teoriatik esan dezakegu subjektua bere munduarekin bat eginda dagoela edo gauza eta gertakari horietan dela, “munduangoa” edo mundu barrenekoa dela, baina horrek guztiak subjektuei abantzu deus ez die esaten. Subjektuak, gertakari batzuen aurrean ez du azaltzeko baliabide handirik. Sentitzen ditu, beraien bidez mundua eta bere burua sentitzen ditu, beraietan bizi da, baina ez daki sentipen horien kontua ematen. Hau da zuzeneko ulermenaren mundua edo mundu-maila. Bizi garen mundua agerikoa zaigu. Arrazoiz eta zentzuz beterikoa: ez du azalpenik behar. Eta azaldu behar izanez gero, bizi izanetara jotzen dugu: bizipenetara.

Subjektuek errealitate batean bizi ahal izateko ahaztu behar dute errealitate horren sorburua: gizarte-jardunetan sortu diren gertakariak berezkozat jo behar dituzte, berez omen den mundu bat sor dadin. Baina munduari buruzko zuzeneko ulermena apurtu egiten da askotan. Haustura horrek munduarekiko arrotz egiten gaitu eta arrotzari zentzua eman behar diogu. Hartara, azalpenak taxutu behar ditugu. Horrenbestez, gure ingurumena ezagutzeko bi bide ditugu: ulermena eta azalpena.

Oinarrizkotik abiatuta, lehendabiziko ezagutza-mota *ezaguera* edota *sena* litzateke, geurez omen dugun jakintza. Ezaguera eta sena edozein organismok bere ingurumenean irauteko behar duen informazioa jaso, antolatu eta erabiltzeko prozesua izan daiteke. Animaliak, esaterako, senak gidatzen dituela esan ohi dugu. Eta sen hori ez da bizitzan zehar landu behar den ezer, jaiotzez daukate animaliek, haien organismoaren erantzun-sistema da. Jakintza inorena bada espeziearena da eta geneetan gordetzen da.

Alderdi genetikoaz landa, gizakiok ingurumenaren ezagutza landu behar dugu. Inolako senik baldin badugu, gurea gizarterako sena da. Gizartean bizitzeko prest jaiotzen baikara. Ezin gara gizartetik kanpo bizi: gizartetik kanpo iraungo bagenu ere, ez genituzke gizaki antzo garatu ahal ditugun gaitasunak garatuko. Ez genuke berbetan ikasiko, ezta pentsamendu abstraktua geureganatuko. Vigotsky-ren tesia aipatu ahal dugu hemen, geure gaitasun behinenak gizartean garatzen ditugu. Hau da, hitz batez, gizarteratze-prozesua. Eta ondo esanda dago: gizarte jakin batera agertzen gara eta bertan geure burua garatu. Geurezko ezaguera eta jaiotzatiko senak izango ditugu, Freud-ek eta bestek pentsatu bezala geure bizitza neurri handian bideratuko dutenak, baina bada bestelako ezaguera bat eta gizarte-senean eta oinarrizko komunikazioan oinarrituta dago: ulermena.

Ulermena ez da ingurumena edota besteak kanpotik eta azaletik ezagutzea. Ez horixe. Gizarteratzean, geure burua eratzean, mundu oso bat egiten dugu geure. Gu geu gara mundu hori. Mundu horren kodea eta geure buruaren kodea kode bera dira. Kontuan hartu, geure buruaren eraikitze-prozesua, azken finean, gizarte-antolakuntzaren arabera organismo bat moldatzea dela. Beraz, geure burua izanarazten duena gizarte-antolakuntza hori da. Guk zuzen eta artekorik gabe ezagutu eta ulertu egiten dugu mundu hori.


Ulermena jakin barik jakitea omen da. Konturatu egiten gara zuzenean (gogoeta egin barik esan nahi baita) zerbaiten edo norbaiten zentzua geureganatu egin dugula eta gainera besteen antzera egin dugula; horri Schutz-ek “ezagutzaren egiturazko gizarteratzea” zerritzon. Ulermen hori, beraz, berehalakoa eta zuzenekoa da, geure ingurumeneko gauzekin bat eginda dago. Gauzak ez dira ezer berez, guk ezagutzen ditugulako gauzak direla esan ahal dugu; ezagutza gauzak eratzea edo eraikitzea da eta eraikitze horri dario berehalako ulermena. Horrela da behintzat nire gizarte-ingurumen hurbileko ezagutzaren kasuan. Schutz-en terminologian: gizarteratze genetikoari esker (Schutz, 1962).

Hala izanik ere, usain ona edo zapore gozoa, alaitasuna edo larridura, besteren asmoak edo nahiak ulertu ahal ditugu. Baina azaldu? Bizikletaz ibiltzen jakin bai, baina azaldu? Koloreak ezagutu bai, bainaitsu bati nola azaldu? Eta are gehiago, geure begi-bistako errealitatea nola azaldu? Kasu horretan ura uretan bezala gaude. Baina, horrela ez gaudenean? Ingurumena arrotz bihurtzen denean, gauzak begi-bistakoak ez direnean, orduan, zer egin?

Azalpena, hain zuzen ere, bestelako bidea, ulermena galdu orduko ulermena berreskuratzeko erabiliko dugun bidea da. Ba al dakigu maitasuna edo gorrotoa azaltzen? Ba al dakigu, oro har, zuzenean ulertzen duguna azaltzen? Oso latza da. Baina gauza, gertaera edo portaera arrotz, bereizi, apartekoan aurrean azalpen bila hasi beharko dugu ezinbestez. Eguneroko bizitzan bezala zientzian ezagutzen ez duguna eta ulertzen ez duguna azaltzeko ahalegin mordoan egiten dugu. Helburua berbera da: *bigarren mailako ulermena* lortzea.

Bigarren ulermen-maila hori ez da zuzenekoa (ez da intuitiboa), hitzez eta arrazoiz hornitutako lana da. Dedukzio logikoa eta pentsamendu arrazionala alde honetan topatuko ditugu. Hala ere, bigarren maila horretan jatorrizko ulermena lortzea da xedea. Etnometodologoen ustez, gizarte-ingurumen jakin batean bizitzeko ditugun jakintza horiek, “etnometodologiak”, apurtu edo arrotz ahal dira eta subjektua bere buruarekiko arrotz, horrela bere “begi-bistako” mundua zalantzan jartzen omen da (Garfinkel, 1967). Gizarte Zientziek lehenbiziko ulermen-maila azpikoz gora jarri nahi izan dute: ulertzen ez duguna hobeto ulertzeko eta, azkenik, ahozko eta arrazoizko azalpenaren bitartez iragazteko zuzenean bizi dugun ulermena.

Egia da gizarte modernoetan oso gaitza dela berehalako ezagutza lortzea, gero eta lan handiagoa eta luzeagoa egin behar dela gizarteratzeko eta ingurumen batean nor izateko. Egia da, garai honetako gizarteek ahalegin berezia eskatzen dietela subjektuei: gizarte modernoak aldakuntzak jasaten eta ondo bereganatzen dakiten subjektuak behar ditu. Eta ikusiko dugunez subjektu aldakorra izatea ez da lan erraza. Egia da, azken buruan, jakintzan eta ezagutzan adituak behar ditugula mundua ulertzeko. Mota askotako adituak ditugu: buruzagi politikoak, auzokideak, intelektualak, telebistako esatariak, apaizak... Guztiek badute zer esan mundua nolakoa den azaldu orduko. Guztiek eskainiko digute errealitateari buruzko azalpenik. Gizarte Psikologia ere ahalegin horretan lankide dugu: *bigarren mailako ulermena* eskainiko digu.



Labur esanda, ararte gabeko ulermena, zuzeneko ulermena, norberaren munduaren naturaltasunarekin dugun lotura baino ez da. Txiste bat kontatzen badigute, ulertuz gero, barre eragingo digu, horixe da ararterik gabe ulertzea, zuzenik ulertzea. Baina ez badugu txistea ulertu, azaltzen badigute gauzak arrunt aldatuko dira. Badakigu azaltzen baina, jakina, ez da gauza bera. Eta bizitzaren gainerako gauzekin berdin gertatzen zaigu. Bizi, zuzenean bizi egiten ditugu (azalpenik ez dute behar), inoiz azaldu behar izanez gero, nondik aterako dugu azalpena? Ideologia, mitoak, zientziak, erlijioak, “kontu” handi asko ditugu, azalpen osoak eman nahi dizkigutenak.

Etnometodologek uste bezala, nor bere inguruko gauzei buruz “kontua” emateko jakintza arrunt bat izan ohi du. Baina gizarte aldakor eta konplexuetan aparteko eta arrotz diren gauza asko agertzen zaizkigu bizitzan zehar. Interpretatzeko lan askotxo egin beharrean gaude. Eta horretarako, “*ikerketa*” berezia egin behar dugu. Gogoan izan “*ikertzea*” xerkatzea edo bilatzea dela. Eta zer da bilatzen duguna? Kausak, arrazoiak. Baina bilaketa edo *ikerketa* sakontzen den neurrian gero eta orokorragoa, gero eta zabalagoa eta “azaltzeko indar handiagoa” duten kausa eta arrazoiak... azken buruan, “azken kausak” bilatzen omen dira. Dakigunez, hau erlijioaren, ideologiaren eta zientziaren lana izan da, dena azaltzeko balio duten sistema edo “kontu” handien zeregina. Azter dezagun gaingiroki, zientziaren zeregina.

1.4. *jarduera*

1.3.1. *Zientzia eta pentsamendu “naturala”*

Schutz-en ideiei jarraituz, ezagutza gizartean banaturik dago (Schutz, 1946). Zientzia, esaterako, ez dago ulertzerik “lan kognitiboaren gizarte-banaketatik” kanpo. Gizartean, beraz, eraikuntza sinbolikoa hainbat mailatan eta arlotan antolaturik dago, eta guztiek ez dute indar bera, ez botere bera (Putnam, 1984).

Hau izan da Antropologia, Soziologia eta Gizarte Psikologiaren *ikerketa* gai nagusietako bat. Kontuan hartu diskurtso- edo pentsamendu-maila horiek, ezagutza-maila horiek askotan gizarte-mailak bereizteko euskarria izan direla (Bourdieu, 1979; Elias, 1987). Eta, bide horretatik, batzuen boterea legitimatzeko edo egia diskurtso batean kokatzeko. Zientzia ere nolabaiteko “diskurtso-komunitatea” da (Wuthnow, 1989). Esan nahi baita, bertan “egia” eraikitzeke metodo adostuak daudela, eta hizkuntza bera erabili beharra, hitz batez, diskurtso bat: anbiguotasuna onartzen ez duen hizkuntza, adiera-bakartasuna lehenesten duena, operazio edo datu zehatzekin berdin daitezkeen kontzeptuak, urrats jakin eta argietan ibiltzen den metodoa...

Hala omen da, “pentsamendu naturala” edo orokorra ez dago erakunde berezietan bereizirik. Gizarteratzearekin edo heztearekin batera edonork bereganatzen duena da; eguneroko bizitza arruntean aritzeko behar duguna. Eta guk ez dugu, normalean ez, horretan sartzeko eskatu. Jakintza edo ezagutza berezietan, ostera, eguneroko bizimodutik hara bertaratu egin behar dugu: sarrera erritualak daude, prozesu luzeak bertaratzeko, ikaste formalizatuak, eta abar. Pentsatu, adibidez, “artearen” esparruan sartzeko behar den prozesu luzeaz, edo “medikuntzan” onartua izateko behar denaz... Hainbat eta hainbat arlo dugu bereizi: jakintza bat, komunitate bat, diskurtso bat, egitura batzuk, erritualak eta abar dituzten jakintza-arlo bereziak. Zientzia horrelako bat delarik, non geratzen da eguneroko “ezagutza”? Antza denez, guztietatik kanpo. Baina guztietatik edaten eta elikatzen.

Gure unibertso kulturaleko eguneroko ezagutzak edo zentzumenak honako ezaugarriok omen ditu (Paez, 1985): substantziak badirela sinesten duen errealismo xaloa da, kausak zertarakoan edota zergatian bilatzen ditu, kontzeptu abstraktuak baino usuago irudiak erabiltzen ditu, arrazoitzeko bide transduktibo eta analogikoaz aritzen da, dogmatikoa eta ego edo soziozentrikoa da... Zientzia kontrakoa omen: pentsamendua formalizatua, induktiboa edo hipotetiko deduktiboa, arategi ezagun eta zehatza, metodologia jakina eta esplizitua duena.

Hala ere, gaur egun ez da hori guztiz onartzen, batetik, zerikusi gutxi duelako zientziagileen benetako jardunarekin, eta bestetik, horrela jardutean “errealitatea” eskas, partzialki edo itsu-mustuan aztertzen delako (Kuhn, 1962; Feyerabend, 1975, 1984; Lyotard, 1986). Gaur ez da erraza jakitea zientziaren eta pentsamendu naturalaren arteko muga zein den edo non dagoen.

Ezagutzari buruzko gizarte-irudikapen postmodernoa (Ibáñez, 1991)

- Cartesianismoaren aurkakoa: batetik, ez gara bizi duda-mudatan; bestetik, subjektua eta objektua berezko izakiak baino diskurtsoaren uneak eta eginkizunak dira.
- Esentzialismoaren aurkakoa: egia ez da egokitasuna, ezagutza ez da errealitatearen ispilua, ontologia guztiak (hots, izateari eta izanei buruzko diskurtsoak) errealitatea sortzeko eta zehazteko jendeak erabiltzen dituen kode sinbolikoak dira.
- Ez da arrazoi bakarrik, ezta errealitate bakarrik ere. Ezagutza espazioan eta historian kokatuta dagoen gizarte-jarduera kontingente eta aldakorra da.
- Ezagutzaren lekua ez da entitate edo subjektu banako baten gaitasuna, ezagutza gizarte-harremanetan da, are gehiago, gizarte-eremua pentsamendu-sistema da.
- Ezagutzaren eragileak elkarrekintzan ari diren pertsonak dira; pentsatzea, beraz, gizarte-joko batzuetan aritzea da, joko horien bidez pertsonak ingurumena eta beren burua egikaritzen dute.
- Gizarte-harremanek euskarri dituzten konbentzioak ezagutza- edo jakintza-mota bat dira, “gizartean bizitzen jakitea”.

Gizarte modernoetan, pentsamendu formalizatu eta operazionalizatutik pentsamendu ez-formalizatura zelan igarotzen den ikusiko dugu aurrerago, baina honaino ekarri gaituen gaia zehazteko ulertu egin behar da arlo guztien artean trukeak daudela, harremanak eta kutsapenak. Azken finean, gizarte-arlo ezberdinak izaki, bertan diharduten pertsonak arlo askotatik ibiltzen dira. Eta batean duten jakintza beste batean erabiltzen dute (maiz, esan dugun bezala, jendearekiko boterea eskuratzearen). Adibidez, gaixotasun berri bat agertzen denean, nori galdetu behar diogu mehatxu hori ulertzekotan? Medikuari, horren galde eginez, haren ezagutza berezia aitortzeaz gain, gure gaineko botere bat ematen diogu.

Bidenabar esan dezagun, jakintza hori denok ulertzeko hizkuntzan eman behar dutela, hots, itzuli egin behar dutela “pentsamendu naturalaren arauen neurrira” (hau da, hain zuzen ere, Moscovici-ren “gizarte-irudikapenen teoriak” dioena, baina hau guztiau laugarren kapitulurako utziko dugu). Hitz gutxitan, xerka edo ikerketa zientifikoaren emaitzak zabaltzeko eta hedatzeko “jakintza narratibo” bihurtu behar dira: “kontu” itxura/tankera izan behar dute (Lyotard, 1986).

Bereizketa hori funtsezkoa da; zientziak mundu erreifikatu bat eraikitzen duen bitartean, jendeak bere eguneroko jardunetan unibertso adostu bat eraikitzen omen du (Moscovici, 1981). *Adostutako unibertsoetan parte-hartzea* zabala eta zuzeneko da, nolabaiteko berdintasuna dago (lagun artean, nik diodanak zuk diozunak beste balio du...). Interes komuneko gaiak jorratzen dira parekotasun batean. “Elkarriketa” da unibertso horren paradigma: berriketan, kontu kontari ari garenean, denon iritziaik balioak izan ohi dira. Berbeta horretan eratzen da mundu zentzudun eta ezaguna, adostua.

*Erreifikatu*etan, berriz, gauzak ez dira berbetako gaiak, irizteko edo ebaluatzeko gaiak, gauzak arrotz eta urrunak dira (esate baterako, denok hitz egin dugu “behi zoroen gaixotasunaz”, iritzirik eman edo zerbait uste izan dugu, baina atzean dagoena zientziaren objektu arrotz eta urruna da, ulergaitza eta konplexua...). Unibertso erreifikatueta gainera, pertsonak hierarkizatuta daude; ekoizpen sinbolikoa eremu berezietan antolaturik dago, eremu bakoitzean hierarkia eta autoritateak daude. Hauxe da, adituen mundua: ekonomia-rena, politikarena, zuzenbidearena... “zientzia oreana”.

Guztiok bizi omen gara unibertso adostu batean, denontzat zabalik dagoen mundu bat delako eta ezinbestez gizarte batean bizi garelako. Baina adostasun hori zalantzan jarri behar dugu. Eta hartara, itzulinguru bat egingo dugu ekintzaren zentzuaren inguruan.

1.3.2. *Gizarte-ekintzaren zentzua*

Ekintzaren zentzua gizarte-zientzietako interesgune berezia izan dela ezin da ukatu. Hasiera-hasieratik izan ere. Hemen, dena den, azken urteotan segida handia izan duen gogoeta-ildo bat aurkeztearekin konformatuko gara: Weber-en ekarpenaz Habermas-ek egin duen irakurketaz ari gara (horretarako, funtsean, A. Cortina filosofoaren esposizioa erabiliko dugu; Cortina, 1995). Dakusagun.

Aipatutako Weber-en ekarpen hura *Ekonomia eta Gizartea* liburuan eskaini zuen. Bertan gizarte-ekintzaren zentzua ekintzaren arrazionaltasunarekin berdindu zuen. Arrazionaltasuna, ikusiko dugunez, eragilearen begiradan topatzen saiatu zen alemaniar soziologoak. Ekintza ez baita portaera hutsa: gizakiok zentzu subjektiboz jantzitako portaerak dituzte eta elkarrekikoan aritzen dira.

Habermas-ek (Habermas, 1981, 1987) Weber-en eredua bi modutara ulertu du: batetik, eredu teleologiko bezala; bestetik, gizarte-elkarrekintzaren eredu bezala. Aurrenean, arrazionaltasuna helburuak lortzearekin berdinduko zuen, hau da, ekintza arrazionala bitarteko/helburu lotura egokia, eraginkorra, duena bide da. Bigarrean, berriz, ekintza arrazionalak bestelako jitea izan dezakeela agertuko zuen. Baina ikus dezagun Weber-ek zelan sailkatu zituen ekintzak helburuen arabera:

- Arrazional teleologikoa; eraginkortasuna xede duen ekintza.
- Arrazional axiologikoa; balioengatik ekintza.
- Afektiboa; emozio eta sentimenduengatik ekintza.
- Tradizionala; ohiturari atxiki zaion ekintza.

Hasiera batean, sailkapen horretako ekintzak “monologikoak” ziren, ez dialogikoak, ez elkarrekintzak. Horrexegatik, arrazionaltasunaren irizpide nagusia bitartekoen eta helburuen arteko egokitasuna zen. Aurrerago, oster, Weber-ek sailkapen bera erabili zuen gizarte-elkarrekintzaren kasuan. Honelaxe:

- Arrazional teleologikoa: besteek egin dezaketena geure helburuak lortzeko erabiliko dugu, besteak eta besteen ekintzak geure helburuei heltzeko bitartekoak izango dira.
- Arrazional axiologikoa: ekintza berez balio duenagatik gauzatuko da, balio hori etiko, estetiko edo erlijiosoa izan daiteke. Ekintzaren balioa, beraz, ez dago

ekintzatik kanpo, ez hona ez harago, ekintzan bertan dago. Ekintzak bere balio horretan du legitimazioa.

- Afektiboa: unean uneko emozio eta sentimenduek eragindakoa.
- Tradizionala: erroturik dauden ohiturak, azturak eta ekanduak.

Arrazionaltasuna lehenengotik azkenekora gutxitzen doa. Arrazionaltasun handiena ekintza teleologikoak duen bitartean, txikiena ekintza tradizionalak du. Aurreneko horrek ekintza bati zentzua ematen dioten lau osagaiak biltzen baititu: bitartekoak, helburuak, balioak eta ondorioak.

Ekintzaren zentzu subjektiboa eta arrazionaltasun-maila:

	<i>Bitartekoak</i>	<i>Helburuak</i>	<i>Balioak</i>	<i>Ondorioak</i>
<i>Zentzu arrazional teleologikoa</i>	bai	bai	bai	bai
<i>Zentzu arrazional axiologikoa</i>	bai	bai	bai	ez
<i>Zentzu afektiboa</i>	bai	bai	ez	ez
<i>Zentzu tradizionala</i>	bai	ez	ez	ez

Mendebaldeko gizarteak jasan duen arrazionalizazio-prozesua, antza, lehendabizikoa nagusitzea izan da. Weber-en ustez, ekintza guztien neurgailu bihurtzen ari zen arrazoi teleologiko edo “instrumentala”. Balioen arabeko ekintza, berriz, gero eta ahulago. Izan ere, balioen arloan subjektibazioa nagusitzen ari zen: nor bere balioak omen zituen eta inoiz izandako balio-sistema orohartzaileak gainbehera zihoazen. Mundua balio orokorrik gabe geratzen ari zen; arrazoi teleologikoak eta politeismo axiologikoak munduari lilurarik kenduko zioten, liluragabetuko zuten beldur zen Weber.

Esan bezala, Weber-en elkarrekintzari buruzko sailkapen horri bere ukitua egin dio Habermas-ek. Pentsalari horren ustez Weber-en sailkapenean bestelako ekintzak ere sar litezke. Hitz gutxitan, eginaren zentzu edo balioaren gainetik, *egin beharrekoaren* zentzua eta balioa kontuan hartu zuen sailkapen berriak. Weber-en (balizko) bestelako sailkapena (Habermas, 1981), elkarrekintzan edo jendea “elkarlanean” eginikoen arrazionaltasun-mailaren arabera:

<i>Ekintzaren Arrazionaltasun-maila</i>	<i>Apala</i>	<i>Jasoa</i>
<i>Interesen bidez koordinatutako “egintza”</i>	Egindakoei jarraituz, ohiko ekintza (ohitura)	Ekintza estrategikoa (interesak lortzeko ekintza)
<i>Adostutako arauen bidez koordinatutako “egintza”</i>	Ohikoari jarraituz, adostutako ekintza (erkidego-ekintza)	Ohikoaz gaindi, adostutako ekintza (gizarte-ekintza)

Sailkapen horretan bi ekintza-mota nagusi ditugu: interesak lortzeko egiten diren ekintzak eta arauen gaineko ituna sorburu duten ekintzak. Hau da, jarduera edo ekintza batzuen “zentzua” (eta ikusten denez, honetan, zentzua eta jatorria parekatzen ditu

Habermas-ek) helburua bera den bitartean, beste batzuen araua da, jendartean adostutako eginbidea nonbait. Baina Weber-ek ez omen zuen asmatu adostutako ekintza-mota biak bereizten. Ez omen zuen ikusi oso bestelakoak direla ohikoari jarraituz adostu diren ekinbideak eta ohikoa gaudituz edo alboratuz egin ohi diren ekintza-arauak. Horiek dira, Habermas-en irudikoz, arrazionaltasun jasoeneko ekintzak. Weber-en lanaz egindako gogoeta horretatik Habermas-ek ekintzen gaineko sailkapen hau ateratu zuen:

	<i>Lorpenak bideratutako ekintza</i>	<i>Hitzarmenak bideratutako ekintza</i>
<i>Jende arteko kanpo</i>	Ekintza instrumentala	
<i>Jende artean</i>	Ekintza estrategikoa	Ekintza komunikatiboa

Lehenengo ekintza arrazional–teleologikoa orain lorpenak eskuratze aldera egindakoa dugu. Egileak helburua zehaztuz, bitartekoak aukeratuz eta ondorioak aurreikusiz aurrera ekingo dio ekintza-mota honi. Honelako ekintzak instrumentalak edo estrategiak izan daitezke.

Instrumentalak arau teknikoek buruzko jakintza enpirikoan oinarritzen dira, hau da, izandako eskarmentutik lortutako jakintza teknikoak gidatzen ditu ekintza instrumentalak. Ekintza hauek ez dira, berez, gizartekoak.

Estrategiak, berriz, hautaketa arrazionalaren arauak jarraituz egiten direnak dira, hauetan kontuan hartu behar dira arrazoidun “lehiakidearen” erantzunak. Beraz, gizarteko ekintzak dira, elkarrekintzak alegia.

Azkenik, *ekintza komunikatiboa* dugu, sinboloen bidez atondutako ekintza. Ekintza komunikatiboak ez dira oinarritzen helburuen lorpenean, akordioan baizik. Egileek ez dute ekintza bideratzen nor bereari eusteko asmoz, ekintzaren hastapena elkarren arteko lana da. Hartara, egoeraren definizio berbera landu behar dute, eta ondoren, elkarri eraginez ekintzari ekin. Maiz esan da, ekintza arrazional teleologikoa pertsonak trebatu egiten direla eta ekintza komunikatiboa, ordea, garatu egiten direla; bati teknika-jakintzako trebetasunak dagozkion moduan, besteari gizarte-jakintzako gaitasunak baitagozkio. Pertsonak, antza, horrelako jakintza eta jarduerak bereganatuz garatzen dira. Baina urrunago doa ekintza komunikatiboaren itzala. Ekintza komunikatiboa etika baten eta utopia baten sorburua izan da: etika, subjektu artekotasunaren etika, eta utopia “komunikazioaren utopia” deritzona, hain zuzen ere (ikusi hamaikagarren eta hamabigarren kapituluak).

Ados egon gaitezke ekintzaren sailkapen horrekin, batik bat, ekintza komunikatiboa edo pertsonarteko ulermena elkarrekintzaren muina delakoarekin. Baina Habermas-i asko kritikatu zaio “elkarrizketaren egoera ideala”, partaide guztiek parte eta erabakiak hartzeko berdintasunezko egoera, ez dela batere unibertuala (Bourdieu, 1982, 1997) eta adostasuna bera ere ez dela horren desiragarria (Lyotard, 1986). Horrela ere, eguneroko bizitza ez da kontzentzu hutsean egindako ezer. Botere-harremanak eta desberdintasunak ezin dira ahaztu, ezta zentzua sortzean ere. Habermas-ek etika bat fundatu nahian, eguneroko elkarrizketan izaten diren baldintzak jarri nahi izan ditu oinarri, baina ahaztuz, neurri

batean behinik behin, ekintzaren zentzua erabakitzeotan ere botereak bereak ezartzen dituela. Lyotard-ek esan bezala, elkarrizketa edo dialogoaren helburua ez da kontzientzia, hori dialogoaren egoera bat baino ez da, defendatu eta segurtatu behar den egoera. Gizarte-bizitzan egoera horren aldeko lana etengabe egiten ari da; nor bere zentzua nagusitzea nahi omen du (Bourdieu, 1997).

GIZARTE-PSIKOLOGIAREN BILAKAERA HISTORIKOA ETA ILDO TEORIKO NAGUSIAK

Aurrekariak: "Iraganaldi luzea..."

Gizarte Psikologiaren aurrekariak oso atzean topatuko ditugu. Greziako pentsamenduan Platon, Aristoteles, sofistak, eta abar. Errenazimentuan humanistak, erreformazaleak, utopikoak. Zientzia berria taxutu zutenak (Bacon, Galileo...). "Gizarte-itunaren teorikoak": Hobbes, Rousseau, Locke. Ilustrazioko ideologoak (D. de Tracy). Lehendabiziko planteamendu soziologikoak (inguruaren eraginari buruz): Montesquieu... Gizarte-zientzien sorrera eta fundamentazioa: Weber, Durkheim, eta abar. Oso iraganaldi luzea, historia laburra duen zientzia-arlo honentzat.

...historia laburra" (Ebbinhaus, 1908)

1. LEHENDABIZIKO PLANTEAMENDU PSIKOSOZIALAK

Sorrera 1900-1935: "Gizarte Psikologia" izena 1898an (Patzenhofer, Tarde "Gizarte Psikologiazko ikerketak"), 1902an (Orano) eta 1908an (Ross, McDougall) agertu zen.

Gizarte-multzoen Psikologia

Völkerpsychologie

Humboldt. Lazarus & Steintal (1860). Lamprecht (1900): Historia zientzia soziopsikologiko bezala. Wundt: *Völkerpsychologie* delakoak (Herri Psikologiak), gizabanakoen psikologiaren osagarria izanik, elkarrekintzetan sortutako gertaerak azaldu beharko lituzke. Durkheim eta Mead-en lanetan eragin handia izan zuen. Beste alde batetik garatu zen Vygotski eta Luna-ren kulturari buruzko Gizarte Psikologia (ildo historiko dialektikoa). Prozesu eta ahalmen kognitibo nagusiek izaera historiko eta soziala dute.

Masen Psikologia

Le Bon: Masen Psikologia (1895). Masen espiritu irrazionala, kutsatzea eta sugestioa. Tarde: imitazioaren legeak (1895), adimen arteko psikologia, gizabanakoen "adimenen batasuna" iritzi publikoa bezalako gertaeretan.

Gizarte Psikologia psikologikoa

Senen teoria

McDougall (1908): gizarte-gertaerak gizakiek jaiotzatik dituzten *berezko senetatik* sortzen dira. Ross (1908): Tarde-ren eragina, gizarte-bizitzak eragindako batasunak eta berdintasunak ikertu: imitazioa, sugestioa eta berrikuntzak. Gizarte-ingurua eta gizabanakoez gaineko entitateak. Eraginak: Mead, gizakien gizarterako berezko ezaguera: interkomunikazioaren eta gizarte-kontzientziaren oinarria. Gizarte Psikologian baino Soziologian izan zuen eragina ildo honek.

Eredu indibidualista

Ratzenhofer, Ward, Small, Thorndike (Errusiako erreflexologia: Paulov eta Bechterev). Watson: ikaskuntzak “jaiotzatiko ekintzarako inpultsoak” baldintzatzen ditu, ez alderantziz. 20 urteak: jaiotzatiko senen teoriak bertan behera utzi, *behaviorismoaren* nagusitasuna: psikologikoa fisiologikoaz azal daiteke osoki, hots, portaera Estimulu/Erantzun eskemaz azal daiteke. Axioma asoziazionista eta mekanizista.

Floid Allport-ek (1924) Mead-en elkarrekintza kontzientearen ordeztan organismo fisiologikoen elkarren estimulazioa jarri zuen gizarte-portaera azaltzeko giltzarri bezala. Mekanizismo biologizista, indibidualismoa eta metodologia zientifikoari buruzko kezka (laborategia, esperimendua, kuantifikazioa) izan ziren ikertzaile honen ezaugarriak. Pixkanaka, Gizarte Psikologia kognitiboagorantz joan zen.

2. SENDOTZE-GARAIA: 1935-1955

30eko hamarkada

Behaviorismoa: ikaskuntzari buruzko teoriak. Gizarte-errazkuntza (F. Allport). Jarrerren ikerketak (G. W. Allport), eskalak (Bogardus, Thurstone, 1928; Likert, 1932; La Pièrre, 1934).

Mead: “Mind, self and society” 1934. “Konduktismo sinbolikoa”.

40/50eko hamarkadak

Gestalt: hautemateari buruzko ikerketak, gizarte-hautematean “eremuaren teoria” aplikatu zen. Lewin, ikuspegi holista eta errelazionala, metodologia anitz. S. Asch (1946) inpresioen sorkuntzari buruzko ikerketak. Milgran, konformismoari buruzko ikerketak. Heider (1944), kausa-egozpena eta oreka psikologikoari buruzko ikerketak. Bruner (“new look in perception”), Postman & Goodman (1947): gizarte-klasearen eragina hautematean.

Antropologia kulturalaren garapena (M. Mead, Kardiner, Benedict, Linton). Komunikazioa eta propaganda: C. Hovland, Janis & Kelley (1953).

Taldee buruzko ikerketak: Sherif, taldearteko portaera. Festinger, gizarte-konparaketa (1954).

Araugintza eta konformismoa: Sherif (1935), Asch (1951). Aurreiritziei buruzko ikerketak (Allport, 1954) eta nortasun autoritarioa (Adorno, 1950).

3. GIZARTE-PSIKOLOGIAREN TEORIAK 1955-1970

Interakzionismo sinbolikoa

Gizarteratzeari eta nortasunari buruzko ikerketak. Gizarte-egitateak eta psikearen egitateak izaera bera duten gertaerak dira: gizakien arteko elkarrekintzan eta sinboloen bidez garatutako izaera. Subjektuak jasaileak barik egileak dira beren elkarrekintzetan: esanahia eta zentzua bilatzen dute, mundua ulertu nahi dute eta ulertze horretan ekintzaileak dira. Jatorria: W. James, Baldwin, Ch. H. Cooley (1919) lehendabiziko taldea, ispiluko *Nia*. Dewey, Thomas, Mead: Behaviorismo sinbolikoa, Rol kontzeptua, bestearen jarrera eta gizarte-elkarrekintza, *self* edo “nor bere burua”. Iowa-ko eskola (Kuhn): unean uneko egoerak gizarte-egituren mende daude. Chicago-ko eskola (Blumer): prozesuak, barneraketa edo introspekzio sinpatikoa, gizarte-egituren azaleratzeak, metodologia ulerkorra eta kualitatiboa. Portaera uler daiteke baina ez aurrez ezagutu.

Interakzionismo sinbolikoaren ingurukoak

Giza ekintzak asmoz eta gogoz dihardu, autonomiaduna da eta ez soilik errepikapen mekanikoa. Kritikak: giza portaera alderdi sinboliko eta adierazkorrera mugatzen dute, horrelaxe ahantzi egiten dituzte gizarte-egiturak, botere-harremanak, testuinguru historiko eta kulturalak.

Ikuspegi dramaturgikoa: Goofman (1959), buruz buruko elkarrekintza (mikrosoziologia, *labelling*). *Etnometodologia*. Ulerkuntza eta elkarrekintza (Weber: portaera esanguratsua, Schutz: fenomenologia eta subjektibitatea). Cicourel (1964), Zimmerman, Garfinkel (1966), H. Sacks: elkarriketen analisia, eguneroko jakintza arrunta, indexikalitatea eta gogoeta erreflexiboa.

Etogenia: giza ekintzaren azpian dauden esanahiak azaleratu (*account*). Harré, Secord.

Konstrukzionismo soziala. Berger & Luckmann (1966).

Besteak: Rol-aren teoria, Tuner, Strauss: rolak elkarrekintzetan negoziatu eta zehazten dira. Gizarteratzea (Glaser eta Strauss, 1964). Kokatutako nortasunaren teoria (Alexander, 1981). Interakzionismo estrukturala (Stryker), gizarte-ordena negoziatua (Strauss).

Ildo sozio-konduktistak

Eredu kognitiboek eraldaturik, 60ko hamarkadatik aurrera garrantzia galduko dute. Ikertu zituzten arloak: gizarte-trukeari buruzko teoriak (Thibaut, Kelley, Homans, 1959), gizarte-ikaskuntzari buruzko teoriak (Bandura: ikaskuntza bikarioa, teoria honekin soziokognitibis-mora abiatu zen; izan ere, portaeraren autoerregulazioa eta propositibitatea eta pertsonen gaitasun sinbolikoa kontuan hartu eta lehenetsi zituen), errazkuntza soziala (Zanjonk), pertsuasioari eta jarreraren aldakuntzari buruzko teoriak (Yale-ko eskola, Hovland, Janis, Kelley...).

Kognitibismoa

1955etik gaur arteko ildo nagusia. Mentalista (ordenagailuaren metafora). Gizabanakoa eragilea eta ekintzailea da informazioa prozesatzean.

Kognizio klasikoa, portaeratik abiatzen dira. Kontsistentzia kognitiboaren teoria: Heider (1954) orekaren teoria, Osgood (1955) kongruentzia kognitiboaren teoria, Festinger (1957) disonantzia kognitiboa. Brehm (1966) erreaktantzia psikologikoa. Kausa-egozpena: Heider (1958) zentzumen arruntaren psikologia. Jones eta Davis-en eratorritako inferentzien teoria (1965), Kelley-ren kobariazio-eredua (1967). Pertsona inguruaren antolatzaile kognitibo arrazionala da, “organismo guztiek oreka bilatzen dute” (gizakiek oreka psikikoa), pertsonak psikologo amateurrak dira eta gainerako pertsonak hautemateko eta ezagutzeko psikologia zientifikoaren antzeko metodoak erabiliz errakuntza eta akats ugari egiten dituzte. Psikologia zientifikoak errakuntza eta akats horiek argitu behar ditu. Ildo teoriko honek akats horiek sistematikotzat eta unibertaltzat jotzen ditu.

Gaur eguneko kognizioa: portaeraren eta egoeraren artean dauden prozesu kognitiboak ikertu nahi ditu. Egitura kognitiboak: eskemak (Bartlett, Hastie, Markus, Fiske & Taylor, 1984), prototipoak (Cantor, 1981), *scripts*, gidoiak, *self* autokontzeptu edo eskema bezala, pertsuasioari buruzko ikerketak, inferentziaren prozesuak: errakuntzak, heuristikoak, egozpenak...

Besteak: Milgran (1963) esanekotasuna, Zimbardo (1969) desindibiduaizoa, Deusch (1949) presoaren dilemaren paradigma. Sozialaren arazoa gizarte-kognizioan (Forgas 1983): desozializazioari kritika, arreta handiagoa izari emozional eta sozialei, printzipio psikologiko unibertsaletatik (gure portaera menderatzen duten gizarteaz kanpoko hautemateko mekanismoetatik) subjektu artekotasunera eta prozesu horien izaera komunikatibora (Zanjonk 1989) eta taldepentsamendura eta egitura kognitiboen jatorri sozio-kulturalera (Vigostki, Luna, Leontiev...).

Europako Gizarte Psikologia

Soziologiatik hurbilago dagoen psikologia-mota. Alderdi estrukturaleri eta ideologikoei arreta handiagoa eskaintzen diena eta metodo askotarikoak onartzen dituena.

Tajfel (Bristol-eko taldea): Taldearteko harremanak eta gizarte-nortasunaren teoria. Genevako eskola (Doise, Deschamps), Turner: *ni*-aren burukategorizazioaren teoria. Gutxiengoaren gizarte-eragina (Aldakuntzaren Gizarte Psikologia) Moscovici: gutxiengoak eta sorkuntza, gatazka gizarte-aldakuntzaren suspertzaile gisa. Kognizio sozialaren berrikuntza kritikoa (Beauvois, Apfelbaum, Herzlich, Mugny, Doise). Gizarte-irudikapenak (Moscovici) eta sinesmen-sistemak (Rokeach, Deconchy).

4. KRISIA ETA GAURKO GIZARTE-PSIKOLOGIA, 1970...

Paradigmaren eta ikergaiaren krisia

Soziologian eredu estruktural funtzionalistari erasoak (Winch, 1958; Wrong, 1961; Garfinkel 1967; Gouldner 1970; Giddens 1971). Psikologian ulermolde behavioristaren nagusitasunaren bukaera (Chomsky, 1959; Taylor, 1964; Fodor, 1968; Mackenzie, 1977). Epistemologian enpirismo logikoaren eta zientziaren teoria klasikoaren bukaera. Gizarte Psikologian: eredu teoriko txikiak (itzal gutxikoak) egiaztatzeke edo gezurtatzeko gaitasunik eza, horiek erkatzeke ezintasuna.

Erantzunak eta bestelako ekinbideak

Antipositibismoa, gizakiak badu, osoki ez bada ere, bere burua gidatzeko eta meneratzeko gaitasunik, bere buruaren eta bizitzaren eragilea da; giza artean, besteekin jarduten duelarik, errealitateari esanahia (zergatia) eta xedea (zertarakoa) ematen dio (erreflexibotasuna eta komunikazioa); gertaera psikosozialak oro historikoak dira, iragankorrak; hizkuntzak erabateko garrantzia du giza bizitzan, eguneroko bizimodu arruntean ere badago arrazionaltasun praktikoa bat.


Etogenia (Harré, Second). Ekintzek izaera semiologikoa dute (zeinuak dira), asmoz eta xedez hornituta daude, subjektuek “gizarte-gaitasuna” dute, eta gaitasun hori gizarte-saioretan antzeman daiteke: jardunean edota “performance” delakoan beha daiteke.

Eguneroko azalpenen analisia (Antaki, 1981). Kontua eman (*account*): gizakiek eginak eta izanak ulertzeko eta azaltzeko ematen dituzten argudioak eta arrazoiak.

Diskurtsoaren analisia (Potter, Wetherell). Oinarri linguistikoak (pragmatika, semiotika, Austin) eta etnologikoak. Ez dago gizaki barneko “entitaterik”, giza jardun guztiak, psikologikoak barne, giza arteko edota hitzezko jardunak dira, guztiak izaera semiotiko (esanahikotasuna) eta komunikatiboa (adierazkortasuna eta elkarkortasuna) dute. Hitz-baliabideak (Gilbert, Mulkay). Erretorika (Billig, Shofler, Bedoya), subjektuek arauak betetzeaz gain (etogenia), sortu eta argudiatzen dituzte kognizioaren estiloetatik kognizioaren edukietara: topikoen eta berbagune arrunten analisia.

“*Gaurkoak*”: konstruksionismo soziala (Watzlawick: konstruktibismoa, Berger & Luckmann: gizarte-eraikuntza), sozio-arrazionalismoa (Gergen, Morawski), ekintzaren estratifikazioa eta egituraketaren teoria (Giddens), konstruksionismo estrukturalista (Bourdieu), interakzionismo sinbolikoa eta estrukturalismoa (Stryker).

Gizarte Psikologiaren kontzeptu-eremua:



1. ZER DA GIZARTE-PSIKOLOGIA? JARDUERAK:

1.1. GIZARTE-PSIKOLOGIAREN AGENDA

Gizarte Psikologiaren agenda eta gai-zerrenda kanoniko bat ezarri da. Aldeak alde, eskuarki errepikatuz onartu egiten dena, hau ikusteko, eta alde horiek zein izan daitezkeen ikertzeko ariketa erraza proposatzen dugu: hainbat eskuliburu arakatzea, hain zuzen. Aski da aurkibideak erkatzearekin “gai-zerrenda” kanoniko hori zein den ikusteko. Harago joan nahi izanez gero, amerikar eta europar, ingelesez eta frantsesez idatzitako eskuliburuak erkatu, bertan ikusiko baitira hainbat alde: boterea, gizarte-irudikapenak edo ideologiak, diskurtsoa, gizarte-mugimenduak... Egia da, azken urteotan konbergentzia bat gertatu dela, hala ere, aldeak hor daude.

1.2. GIZARTE-PSIKOLOGIAREN DEFINIZIOAK

Hurrengo definizio hauek irakurri eta aipaturiko ildo horien arabera sailka itzazue. Aurrerago, zuzenketa topatuko duzuen arren, saia zaitezte definizioak ondo ulertzen eta haien artean dauden aldeak argitzen. Zer Gizarte Psikologia islatzen dute definizioak? Gogoan izan:

- Gizarte Psikologia psikologikoa edo gizabanako barnekoa.
- Gizarte Psikologia soziologikoa edo gizartekoa.
- Gizarte Psikologia interakzionista, giza arteko elkarrekintzakoa.

“Gizabanakoa gizartean ikertzen duen zientzia”. Krech, Crutchfield & Ballachey, 1972.

“Psikologia ezin da Gizarte Psikologiaz beste izan. Mundu subjektiboak ere ezin dira sorleku eta bizileku dituzten prozesu komunikatiboetatik banandu... ezta norberaren nortasuna sorleku duen gizarte-egituratik ere”. Eberle, 1993.

“Gizarte Psikologiak pertsonen gogoaren (edo portaeraren) arazoei buruz dihardu, beti ere arazook beste pertsonetikiko elkarrekintzetatik datozenean”. Brown, 1972.

“Gizarte Psikologiaren xedea honako hau da: gizakien pentsamenduei, sentimenduei eta portaerei beste izaki errealek, irudizkoek edo ustekoek zelán eragiten dieten ulertzea eta azaltzea”. Gordon Allport, 1968.

“Nire aburuz, Gizarte Psikologia, eguneroko bizitzan gizonak (sic) lotzen dituzten ustezko, irudizko (sinbolozko) edo benetako loturen arabera giza esperientzia eta portaera ulertzeko burulan sistematikoa da; giza izaera izatez eta ezinbestez gizartekoa eta sinbolikoa dela kontuan harturik, giza izaera hori hobeto ulertzeko ahalegin sistematikoa da”. Torregrosa, 1982.

“Ez dago taldearen psikologiarik funtsean eta osoki gizabanakoen psikologia ez denik. Gizarte Psikologia gizabanakoaren psikologiaren atal bat besterik ez da”. Floyd Allport, 1924.

“Gizabanakoen portaera eta esperientziaren estimuluak egoera sozialak direnean portaera eta esperientzia horien ikerketa zientifikoa”. Sherif, 1936.

“Gizonek (sic) gizarte-taldeetan parte hartzeagatik giza portaeran sortzen diren erregularitasunak (ikertu behar ditu Gizarte Psikologiak)”. Shibusani, 1971.

“Gizabanakoaren jardunei gainerako gizabanakoek zelan eragiten dieten ikertzeko bide zientifikoa”. Klineberg, 1963.

Psikologizistak

- “Gizabanakoa gizartean ikertzen duen zientzia”. Krech, Crutchfield eta Ballachey.
- “Gizabanakoaren jardunei gainerako gizabanakoek zelan eragiten dieten ikertzeko bide zientifikoa”. Klineberg.
- “Gizabanakoen portaera eta esperientziaren estimuluak egoera sozialak direnean portaera eta esperientzia horien ikerketa zientifikoa”. Sherif.
- “Ez dago taldearen psikologiarik funtsean eta osoki gizabanakoen psikologia ez denik. Gizarte Psikologia gizabanakoaren psikologiaren atal bat besterik ez da”. F. Allport.
- “Gizarte Psikologiaren xedea honako hau da: gizakien pentsamenduei, sentimenduei eta portaerei beste izaki errealek, irudizkoek edo ustekoek zelan eragiten dieten ulertzea eta azaltzea”. G. Allport.

Soziologistak edo integratzaileak

- “Gizarte Psikologiak pertsonen gogoaren (edo portaeraren) arazoei buruz dihardu, beti ere arazook beste pertsonetik elkarrekintzetatik datozenean”. Brown.

Analisi-mailen integrazio gisa

- “Nire aburuz, Gizarte Psikologia, eguneroko bizitzan gizonak (sic) lotzen dituzten ustezko, irudizko (sinbolozko) edo benetako loturen arabera giza esperientzia eta portaera ulertzeko burulan sistematikoa da; giza izaera izatez eta ezinbestez gizartekoa eta sinbolikoa dela kontuan harturik, giza izaera hori hobeto ulertzeko ahalegin sistematikoa da”. Torregrosa.
- “Gizonek (sic) gizarte-taldeetan parte hartzeagatik giza portaeran sortzen diren erregularitasunak (ikertu behar ditu Gizarte Psikologiak)”. Shibusani.
- “Psikologia ezin da Gizarte Psikologiaz beste izan. Mundu subjektiboak ere ezin dira sorleku eta bizileku dituzten prozesu komunikatiboetatik banandu... ezta norberaren nortasuna sorleku duen gizarte-egituratik ere”. Eberle.

1.3. GIZARTE-PSIKOLOGIAREN ARLOAK ETA APLIKAZIOAK

Hona hemen Gizarte Psikologiak ikertzen dituen hainbat arlo. Segituan arlo horietan ikertzen diren zenbait gai edo aplikazio dituzu. Zein arlotan ikertzen da bakoitza? (Lord, 1997).

“Norberari buruz eta besteei buruz gogoeta egiten”

1. Gizarte-kognizioa
2. Pertsonen pertzepzioa
3. Egozpenak
4. Nor bere burua

“Jendea eta harremanak ebaluatzen”

5. Jarrerak
6. Jarreraren aldakuntza
7. Aurreiritziak
8. Pertsonarteko erakarpena
9. Lagun minen arteko harremanak

“Besteekiko elkarrekintzetan”

10. Gizarte-eragina
11. Laguntasuna
12. Erasokortasuna
13. Pertsonarteko boterea
14. Taldeak

- Nola erabakitzen duten epaimahaikideek pertsona bat errugabea ala erruduna dela.
- Zergatik hartzen diren batzuetan, enpresaburuen bileretan zentzugabeko erabakiak.
- Zergatik ezin duen jendeak elkarrekin lan egin ingurumena babesteko.
- Nola hezi jendea arrazismoa gutxitzeko.
- Zergatik irauten duten kide batentzat oso kaltegarriak diren harreman batzuek.
- Zergatik dibortziatzen diren elkarrekin zoriontsuak diren senar-emazte asko.
- Nola jakin norbait gezurretan ari dela (adibidez: lan-elkarrizketa batean).
- Nola bihurtu erretzaile amorratua erretzearen aurkako amorratua.
- Komunikabideetako bortxakeriak ala inguruko bortxakeriak, zeinek sorrarazten duen bortxakeria handiagoa.
- Zein egoeratan eta zeren arabera laguntzen diegun gure ingurukoei.
- Zergatik HIESAren biktima batzuek euren buruari leporatzen dioten gaixotzea.
- Euskararen aldeko euskaldun askok zergatik hitz egiten duten erdaraz.
- Nork bere buruari buruz duen irudiak nola egiten dion kalte norberari.
- Zergatik jarraitzen eta betetzen dituzten pertsonak agintarien zentzugabeko aginduak.

(Erantzun posibleak: 1-1, 2-7, 3-11, 4-13, 5-12, 6-8, 7-4, 8-6, 9-5, 10-3, 11-10, 12-9, 13-14, 14-2).

1.4. GIZARTE-PSIKOLOGIA ETA ZENTZUMENA

Ikusi dugunez, Gizarte Psikologiak bigarren mailako ulermenerako baliabideak ematen dizkigu. Askotan, bigarren mailako ulermen saioak eta zentzumenerako azalpenak bat datoz; beste batzuetan, berriz, kontrakoak dira. Adibide batzuk ekarri ditugu esandakoa aztertzeko (Moya et al, 1998tik moldatutako kasuak dira hauek).

Irakurri kasu hauek eta erabaki esaten dena egia ala gezurra den, kasu batzuetan zalantzak izango dituzu, hala bada pentsatu noiz izango den egia eta noiz gezurra. Erantzunak, zuzenean eman barik liburuan topa ditzazuen utzi ditugu.

1. Pertsona batek bere jarduera hobetu egiten du beste pertsona batzuk berari begira daudenean.
2. Pertsona bat laudatzen badugu edo beraren iritziekin bat bagatoz, pertsona horrek hobeto ikusiko gaitu.
3. Pertsona bat azkarra, langilea, burugogorra eta bekaiztia dela esaten badidate eta beste pertsona bati buruz, berriz, bekaiztia, burugogorra, langilea eta azkarra dela esaten badidate: irudi bera izango dut biei buruz? Jaso dudana informazioa berbera dela kontuan hartuta, zer uste duzu?
4. Estimulu sozialak (pertsonak, taldeak, alderdi politikoak...) hautematen ditugun moduari eragin ahal diote gainerako pertsonak, baina estimulu fisikoak (txanponen tamaina, koloreak, marrak...) hautematen ditugun moduari ez, ostera.
5. Jendeak besteen jokaera barneko (hau da, pertsona barneko) kausen ondorio bezala hautemateko joera du; esaterako, norbaitek erasokor jokatzan duenean pertsona erasokorra dela pentsatuko dugu, eta ez egoeraren edo inguruko gorabeheren ondorio dela.
6. Pertsona azkarrak eta hezkuntza-maila jaso dutenak batzuetan konbentzitzen errazenak dira.
7. Distrakzioa zenbat eta handiagoa, pertsuasioa hainbat eta txikiagoa. Hau da, oharkabe gaudenean, eta mezuari arretarik ematen ez diogunean, nekez sinetsaraziko digute ezer.
8. Batzuetan mezu pertsuasibo batek hartzailearengan duen eragina (iragarki edo diskurtso batena, kasu) mezua jasotakoan baino handiagoa da aldi bat igarota.
9. Labezomorroak (erreak, nonbait) jan behar dituzun esperimendu batean parte hartzeko eskatu dizute, konbentzitu zaituenak hau esan dizu: zure doktore-tesirako berebizikoa eta ezinbestekoa dela, horrez gain, zientziari itzelezko laguntza eman-go diozula eta, are gehiago, munduko gosetearen aurkako aurrerapauso garrantzitsua izan daitekeela. Zure ikaskide bati esperimendu berean parte hartzeko eskatu diote, baina hari ez diote azalpenik eman, eta besterik gabe onartu egin du. Labezomorroak jan ostean, zure ustez: nori gustatuko zaizkio gehiago? Geure ustez, zuri, izan ere, arrazoi gehiago eta handiagoak dituzu horretarako.

10. Bi pertsonak (A eta B) Enekoz hainbat informazio dute; Ak oso ikasle ona dela, Bk oso ikasle ona dela, bi anaia duela, alaia dela eta bere gelan landareak dituela. Haietako zeinek (Ak ala Bk) joko du Eneko ikasle ontzat? Duten informazioa kontuan harturik, esan dezakegu biek halaxe pentsatuko dutela?
11. Gaizka erabat ados dago esaldi honekin: “Emakumeek ez dute balio zuzendari izateko”. Baina aurton zuzendari lan egiten duten hainbat andre ezagutuko ditu. Beraz, iritzi aldatu eta lehengo estereotipoa ahaztuko du. Ala ez?
12. Pertsonak banaka ari direnean, taldeka ari direnean baino erabaki arriskugarriagoak hartzeko joera dute. Esaterako, burtsako inbertsore batek aberasteko aukera baten berri izan du, hartara diru guztia jarri behar du jokoan, kale eginez gero: erabateko hondamendia. Esan dugunaren arabera, bakarrik erabakiz gero bere erabakia ausartagoa izango da; izan ere, taldeka beste batzuen ikuspuntu eta iritziak entzungo ditu.
13. Nork bere taldekoak diren pertsonak nahiago ditu beti, txarto jokatzan badute ere; adibidez, Errealeko hintxa batek Osasunako hintxak baino bere taldekideak nahiago ditu, lotsagarri jokatzan badute ere.